

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****LEGUTIOKO UDALA****Aldatzea 2019/2021eko dirulaguntzen plan estrategikoa**

Udalbatzak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkura berezian, hau erabaki zuen:

Lehenengoa. Legutioko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2019-2021) aldatzea, ondoren adierazten den eran aldatu ere:

Kirol dirulaguntzak:

Lankidetzaren xedea areagotzea 2021erako, alegia:

| DIRUZ LAGUNDUKO DEN GAIAREN DESKRIBAPENA | HARTZAILEA: | EMATEKO MODUA | HELBURUA | AURREKONTUA | APLIKAZIOA |
|---|--------------------------|--|---|-------------|-------------|
| Kirol jarduerak antolatzeko dirulaguntzak, irabazi asmorik gabeko kirol elkarteentzat | Boga-boga Kirol kluba | Dirulaguntzen zuzeneko emakida, hitzarmena | Jarduerak antolatzeak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, Legutioko kokagune naturalarengatik | 12.000 € | 341.481.000 |
| Kirol jarduerak antolatzeko dirulaguntzak, irabazi asmorik gabeko kirol elkarteentzat | Di-da Legutioko Pilota | Dirulaguntzen zuzeneko emakida, hitzarmena | Pilotalekua, ikastaroak ematea eta herriarteko txapelketak kudeatzeak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, ohiko herri kirola izateagatik | 12.000 € | 341.481.000 |

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn, udal web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Legutio, 2021eko urtarrilaren 21a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO